

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa zabaldu ahal izateko gure beharrak asetzen dituzten pertsonekin harremanak mantendu beharko ditugu. Beraz gure produktua aurrera eramateko egin behar ditugun kontaktu guztiak azalduko ditugu.

Gure makinaren funtzionamendurako garrantzitsuena material hobereenak izatea iruditzen zaigu. Horretarako, *“Conductores del norte”* enpresarekin harremanetan jarriko gara, Hernanin kokatuta dagoen enpresa honek kalitatezko kableak eskaintzen dizkigulako erabaki ditugu. Bestalde, gure makinarentzat ezinbestekoak diren materiala (plantxak eta laserra) lortzeko *“Calor Vizcaya”* eta *“Laser Bidez”* enpresekin harremanetan jarriko gara, gure materialak aukeratzeko momentuan zentzuzko prezioa izatea garrantzitsua dela pentsatzen dugu, baina guri Euskal Herriko enpresekin lan egitea gustatuko litzaiguke, horregatik plantxak eta laserrak salduko dizkiguten enpresak Bizkaiakoak izango dira. Pantailak saltzen dituen enpresarik ez dugu aurkitu ez Gipuzkoan, ez Bizkaian, beraz Nafarroako enpresa batekin harremanetan jarri gara, bereziki *“G.M. Trading”* enpresarekin. Gure makinak plaka bat behar du makinaren programazio guztia jasotzeko, plaka hau lortzeko *“Obeki Electric Machines”* enpresarekin kontaktuan jarriko gara, enpresa hau lbarran kokatzen da eta plakak erosteaz gain motoreak ere enpresa berean erosiko ditugu. Azkenik gure makina osatzeko plastikoa eta aluminioa saltzen duten enpresekin harremanetan jarri behar gara, aipatutako materialak erosteko Zaragozan kokatuta dagoen *“Plasticos E ingenieria Morte”* enpresarekin kontaktatuko dugu.

Makina montatzeko gai diren pertsonekin kontaktuan ere jarri behar gara. Hasiera batean bi pertsonekin nahikoa izango da, gero pertsona gehiago kontratatuko genituzke eskaerak gorantz badoaz. Makinaren diseinurako ere disentzaile batekin kontaktatu behar dugu, makinaren kanpo disenuaz arduratzen dena, koloreak, forma... Enpresaren logoaz ere arduratuko da, guk dauzkagun ideiak adieraziko dizkiogu eta berak logotipo bat aurkeztuko digu. Alde batetik, edonork gure logoa ikustean gure enpresarekin berehala lotzea nahi dugu, bestetik logotipo hau hainbat tokitan txertatu nahi dugu, webgunean, enpresaren arropan, makinan... Pertsona hauen zerbitzuak lortzeko *“lanbide”* enpresarekin kontaktatuko dugu langile hobereena kontratatzeko.

Gure proiektua aurrera eramateko programatzaile batekin jarri beharko gara harremanetan. Programatzaileak gure makina programatuko du, guk dauzkagun ideiak esango dizkiogu eta ideia horiek funtzionarazteaz arduratuko da. Beste alde batetik programatzaileak gure webgunea disenatu beharko du. Hori lan garrantzitsua izango da, azkenean bezeroek webgunetik izango dute gure produktua erosteko aukera eta erabilerraza izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Webgunean dena automatizatuta egon behar da, baina arazoak edo webgunetik argitu ezin dituzten galderak badituzte gurekin hitz egiteko aukera izango dute telefono bidez. Programatzailea lortzeko beste behin *“lanbide”* enpresarekin kontaktatuko dugu programatzaile hobereena kontratatzeko.

Bestalde, gure makina eta enpresa aurrera joan ahal izateko lan egiteko leku apropos eduki behar dugu. Horretarako, Uggasa (lokalak eskaintzen dituen enpresa) enpresarekin kontaktatu eta hauek eskaintzen dituzten lokaletan lan egingo dugu. Prezio baxua lagungarria izan



daiteke enpresa munduan hasi-berri diren pertsonentzat, normalean horrelako pertsonak ez daukatelako enpresa bat laguntzarik gabe aurrera eramateko dirurik. Gainera ura eta argi indarra ere eskaintzen digute. Lehen esan bezala, bertan gure makinaren funtzionamendua landuko dugu eta gure sare sozialen edukia ere bertan landu eta igoko dugu.

Hasiera batean diru asko ez dugu edukiko beraz laguntza bat eskatu beharko dugu edukiko ditugun gastuetarako. Honetarako "*Sabade!*" banketxean kontu korrante bat irekiko dugu, enpresaren izenena, hau enpresan edukiko ditugun gastu, irabazi eta maileguentzako izango da. Hasieran edukiko ditugun gastuetarako mailegu bat eskatuko diogu banketxeari eta irabaziak ditugunean mailegu hori ordainduko dugu.

Azkenik, garraiorako furgoneta bat beharko dugu, hau makinaren banaketa egiteko eta bezeroek arazo bat dutenean beraiengana joateko izango da. Furgoneta erosteko "*Citroen*" kontzesionarioarekin hitz egingo dugu, bereziki Bergaran kokatuta dagoenarekin, guk behar dugunerako gehien gustatzen zaizkigunak direlako eta prezio hoberenak dituztelako. Baita ikusi dugu furgoneta txikiak eta autoak dituztela, hori guretzako ere garrantzitsua da, salmentak gorantz badoaz garraiobide gehiago beharko ditugulako.